

Ostirala

2018ko ekainaren 29a
IX. urtea
359. zenbakia

www.gipuzkoa.hitza.eus
gipuzkoa@hitza.eus

4 Elkarizketa Mikel
Unzurrunzaga 'Makala' DJarekin
hizketan, urteotako musika ibilbidez

8 Arrauna Asteburuan jokatu-
ko dituzte Euskotren ligan aritzeko
kanporaketak, Sestaon eta Zierbenan

GIPUZKOAKO HITZA



**Behar handiena
dutenei erantzunez**

120 urte bete berri ditu Arrasateko Aita Menni ospitaleak • Buruko osasuna dauka ardatz Benito Menni
apaiz italiarrak inauguratu zuen zentroak • 900 langile ditu, eta 1.200 gaixori ematen die arreta • 2-3



120 urte bete berri ditu Arrasateko Aita Menni ospitaleak. Angelo Hercules Menni 'Benito Menni' apaiz italiarrak inauguratu zuen, 1898ko ekainaren 1ean, Santa Agedako bainuetxearen lurrak erosita. Gaur egun, 1.200 pertsonari ematen diete arreta zentroan lanean ari diren 900 profesionalak.

«Ghetto» izaerari ihesean

Unai Zubeldia Arrasate

Bere horretan jarraitzen du buruko gaixotasunen estigmak». Mikel Tellaetxe 2013tik da Arrasateko Aita Menni ospitaleko zuzendaria, eta eguneroko errealtate izaten du buruko osasuna ardatz duen zentroa. «Jardun hori normala da guretzat, baina desberdina den hori baztertu nahiak edo familian urritasunen bat duen senideren bat izateak sortzen duen lotsa dago estigma horren atzean. Bai, oraindik ere bai». Angelo Hercules Menni *Benito Menni* apaiz italiarraren eskutik, 1898ko ekainaren 1ean zabaldu zituen ateak Aita Menni zentroak –Santa Ageda osasun etxea izenez ezaguna zen garai batean–, Gesalibar auzoan, eta

120 urte bete berri ditu, beraz. «Garai hartan ekin zioten lanari jarraipena ematen ari gara gu». Aita Menniko arduradunek emandako datuen arabera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, gaur egun, herritarren %6-8k daukate buruko gaixotasunen bat.

Egun, Arrasateko ospitaleaz gain, Aita Mennik buruko gaixotasunei aurre egiteko 25 egoitza eta eguneko zentro dauzka Bizkaian eta Gipuzkoan, eta mundu osoko 26 herrialdetan lan egiten du. «Asian, Afrikan eta Hego Amerikan dauzkagu jarrita indarrak», zehaztu du Tellaetxek berak. Zuzendariaren hitzetan, «garaian garaiko egoerara eta pertsona bakoitzaren beharretara egokitzea» izan da taldearen lorpeneik handiena. «Izan ere, ez du arreta berbera eskatzen eskizofrenia daukan pertsona batek, dementzia daukan adineko batek

edo urritasunen bat daukan pertsona batek. Tratamenduak ahalik eta zehatzenak eta pertsonalizatuak izan daitezten saiatzen gara beti». Duela 25 urte, behar horiei erantzuteko erronkari helduta sortu zuten, esaterako, garuneko kalteei erantzuteko unitateak.

Urte askoan «ghetto» bihurtzeko arriskua izan dute Aita Menniren gisako zentroek. «Kasu gehienetan atzera bueltarik gabea izaten zelako gaixoaren ingreso». Baina, urteen poderioz, aldatu egin da errealtate hori. «1980ko urteetatik aurrera aldaketa bat gauzatu zen gizarte-ahalekin, gizarteratzea izan da helburua».

Osakidetza orduan hasi zen buruko gaixotasunak artatzeko zen-

troak sortzen, errehabilitazio psikosozialeko zentroen aldeko apustua egin zuten aldundiek, adinekoen eguneko zentroak irekitzen hasi ziren gero... «Adinekoek ahalik eta denbora gehien familiaren ondoan irautea da bihurtzeko horien helburuetako bat, eta, buruko gaixotasunen bat daukatenean kasuan, ahal den neurrian, komunitatera itzultzea». Iruñe Galarraga Aita Menni ospitaleko erizain zuzendariak zehaztu duenez, Osakidetza, egun, kontzertatuta dauzka epe ertaineko eta epe luzeko egonaldia, «San Juan de Diosen [Donostian eta Arrasaten daukate ospitaleak], Usurbilgo sendategiarekin eta gurekin, Aita Mennirekin».

Aita Mennik Arrasaten dauka, egun, egoitza nagusia, baina Eskoriatzakoia izan zen Benito Menniren lehen apustua. 1872 eta 1876

artean lehertu zen Bigarren Karlistaldia Hego Euskal Herrian, eta, orduko egoera larriaren jakitun, 1973an Gurutze Gorri sortu berriari boluntario gisa sartzeko eskatu zuen Aita Mennik. Urte haietan ezagutu zuen italiarrak Debagoiena, Arrasate eta Eskoriatza ingurua, bereziki, eta horren ondorioz gauzatu zituen bere bi proiektu nagusiak. 1875eko azaroaren 28an inauguratu zuen Arrosario Santuaren Ospitalea, Eskoriatzan, gaur egun Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Zientzien Fakultatea dagoen lekuan, gerraren ondorioz behar handiena zeukatenei laguntzeko helburuarekin. «Baina hainbat arrazoi tarteko, itxi egin behar izan zuen bi urteren buruan», zehaztu du zuzendariak.

Garai hartan, bainuetxe lekua zen Arrasate-Eskoriatza ingurua,



eta jende asko joaten zen bertara atsedean hartzera. Antonio Canovas del Castillo Espainiako gobernuburua tarztean. 1897ko abuztuaren 8an, Santa Agedako bainuetxean zela, Michele Angiolillo anarkista italiarrak tiroz hil zuen Canovas del Castillo, eta bainuetxeak berehala galdu zuen ordura arte zeukan izen ona. Etorkizunik ez zeukala ikusita, lur haiek salgai jarri zituzten Ramon, Sabina eta Carlos Mendiak, bainuetxearen orduko jabeek, eta aukera horri heldu zion Benito Mennik. «Bi el-karte sortu zituen berehala: Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarioen Kongregazioa, eta San Joan Jainkoaren Anaïen Ordena. Garai hartan generoaren arabera banatzen zituzten egoitzak», azaldu du Tellaetxek.

Familiaren garrantzia

Gainerako ospitaleetan bezala, gaixoak artatzen dituzte Aita Mennin ere. «Baina oso kontuan hartu behar izaten da gaixoaren inguruko errealtate edo komunitate guztia», azaldu du Galarragak. «Guk beti esaten dugu hemen daudenak ez direla gaixoak, gaixorik dauden pertsonak baizik. Edozein gaixotasun eduki dezakegu guk ere, eta buruko gaixotasunak dauzkate hemengoek, besterik ez». Aita Menniko langileek «gero eta argiago» daukate gaixo dauden horien familiek zenbateko garrantzia daukaten.

Tellaetxek garai bateko errealtatera jo du egungoaz jabetzeko. Duela urte batzuk, «eroetxe» deitzen zitzaïen buruko osasuna tratatzeko ospitaleei. «Eta herri-guztietatik kanpo egoten ziren, normalean». Lehen urte haietan, «gizarteak bazterritutako emakumeak» izaten ziren gehienak. «Pentsa, neskatoen pabiloia deitzen zitzaïon eraikinetako bati», 80 urte dauka gaur egun. «Baztertutako neskatoak sartzen zituzten bertan, buruko gaixotasun



oso larriak zeukatenak edo adimen urritasunen bat zeukatenak; marjinazioan bizi ziren, erabat baztertuta». Galarragak horregatik eman dio hainbesteko garrantzia familiaren babesari. «Hiri txiki bat da hau».

Eta, hiri guztietan bezala, *ordaindutako* lanak ere egiten dituzte bertan bizi direnetako askok. «Gazteen gaitasunak kontuan hartuta, gizarteratzeko zenbateko aukera dagoen aztertzen dugu, eta hainbat tailer antolatzen ditugu, eurak treba daitezzen. Egindako lanaren arabera onurak jasotzen dituzte gero, kafetegian, dendan... baliatzeko». Gureak enpresarekin elkarlanean aritzen da Aita Menni. «Eta, momentu jakin batzuetan, babestutako tailer horietara ere joaten dira lanera. Guretzat Realaren harrobiko jokalarî bat lehen taldera iristean parekoa da zentro honetan dagoen gaixo batek Gureak-en lantegiren batera jauzia egin ahal izatea».

Gaixoei behar bezalako arreta eskaintzeaz gain, lana sustatzea ere badelako Arrasateko zentroaren erronka. «Buruko gaixotasunekin desegituratu egiten dira ohiturak, portaerak... eta senda-



Lehen, hiru auto istripu izaten ziren iktus bakoitzeko, eta, orain, hiru iktus izaten dira auto istripu bakoitzeko»

Mikel Tellaetxe
Aita Menni ospitaleko zuzendarîa

«Guk beti esaten dugu hemen daudenak ez direla gaixoak, gaixorik dauden pertsonak baizik»

Irene Galarraga
Aita Menniko erizain zuzendarîa

gaiekin, diziplinarekin eta jarduerekin lan egiten dugu guk. Normaltasunetik, pertsona horien egiturak hutsetik sortu behar izaten dira berriz ere». Alde horretatik, gero eta boluntario eta elkarte gehiago ari dira elkarlanean Aita Mennirekin.

120 urte atzera eginda, garai hartan «120 bat moja, auto gidari bat eta mantentze lanak egiten zirenen gizonezko bat» aritzen ziren lanean Arrasateko zentroan, buruko gaixotasunen bat zeukaten gaixoak artatzeko Gipuzkoan zegoen erietxe bakarrean. Gaur

egun, berriz, hamar moja daude zentroan, 900 langile inguru aritzen dira lanean, eta, zerbitzu guztiak kontuan hartuta, 1.200 bat gaixo artatzen dituzte egunero -430-435 ohe daukate Aita Mennin-. «Ia ehun boluntarioen laguntza ere izaten dugu hainbat programa gauzatzeko».

Gizartearekin, aldatzen

Gizartea «egunero» ari da aldatzen, eta neurri berean aldatzen dira herritarren beharrak ere. «Adibide gisa, duela lau urte ez zegoen buruko gaixotasuna daukaten eta espetxeetan dauden pertsonen arreta emateko auzitegi psikiatrikoko unitaterik, eta duela hamabi urte sortu zuten jokabidearen nahasmendua dakarren adimen urritasunerako unitatea». Tellaetxek onartu du eguneroko lanean ez dela erraza aldatzeko jabetzea. «Baina atzera begira jarritakoan jabetzen gara zenbat pauso ematen ari garen».

Buruko gaixotasunen errealtatea «gero eta gehiago gizarteratzea» ari dela uste du Galarragak. «Nolabait esatearren, arazo hori ezkutuagoan zegoen lehen, eta gizarteak normalagotzat hartzen du gaur egun». Eta, hain zuzen

- 1 **Aita Menni ospitalea.** Mikel Tellaetxe zuzendarîa, Monserrat Esparza ama nagusia eta Irune Galarraga erizain zuzendarîa, ospitalearen atarian.
- 2 **Baratzea.** Eraikin nagusiaren ondoan dago, eta zenbat gaixo lanean aritzen dira bertan.
- 3 **Tailerak.** Txandatan banatuta, eskulan tailerretan aritzen dira ospitalean dauden gaixoak.
- 4 **Korridorea.** 166 metro dauka ospitaleko korridore nagusiak.

ARGAZKIAK: JUANAN RUIZ / FOKU

ere, erizain zuzendarîaren ustez hori izan da aurrerapausorik garrantzitsuenetakoa, «1983an harrresiak hautsi eta gizarteratzen hastea». Denboraren poderioz, arazoaren neurria gutxitzen ez, aldatzen ari dela uste du Tellaetxek. «Lehen, Downen sindromea zeukatenak ez ziren iristen 40-45 urterta, baina gaur egun, 45-50 urteren langa igarota, ikusi dugu pertsona horiek gaixorik ez dagoenak 70 urte bete ondoren izan dezakeen dementsia berbera izan dezaketela. Errealtate berri horrekin topo egin dugu».

«Pertsonen jokabidearen arazoetan espezializatuta», osasun sistema osatzen duen katearen «katebegi bat gehiago» da Aita Mennirena, eta Tellaetxek eta Galarragak oso argi daukate «une oro gizartearen beharrei erantzutea» dela etorkizunerako erronka. «Lehen, hiru auto istripu izaten ziren iktus bakoitzeko, eta, orain, hiru iktus izaten dira auto istripu bakoitzeko. Zorionez, gero eta seguruagoak dira errepideak, baina iktus kopurua ugartzen ari da bizitza sedentarioaren eraginez. Sortzen ari diren behar horiei erantzun behar diegu guk».

Erronka horri helduta, Aita Mennin eraberritze lanak egingo dituzte laster, eta indartu egin nahiko lukete eskolekin egiten ari diren lana. «Neska-mutikoei errealtate hau azaltzen jarraitu behar dugu, gauza arrotza ez, gertutakoa dela erakusteko».